

KOSTUEN EGITURA

Helburua kalitatean eta ospe onean oinarritutako enpresa bat sortzea da horregatik honen helburua produktua ahalik eta gehien zaintzea izango da. Honela kobratzen den prezioaren balioa merezita lortu ahalko dugu. Horretarako kostuak minimizatzen saiatu gabe izan ere, enpresaren helburua ez da izango ahalik eta etekin gehien ateratzea produktuaren kalitateaz arduratu gabe, hau da, lehen helburua produktu hori nahi den bezalaxe egotea da, ez bada joko edota proiektu hori nahi den bezala egiten ez da salmentan jarriko edota jokoaren pentsatutako prezioa jaitziko da horrela produktuaren kalitatearekin bat egiten duen prezio bat jarritz.

Joko hauetan pertsonalizazio maila bat eskaintzen saiatuko da, hau da, bezeroei egingo zaie kasu joko baten prezioa jartzerakoan. Ez da guztiz jarriko beraiek esaten duten prezioa, izan ere, horrela izango bazen ez zen batere dirurik irabaziko.

Baina adibidez joko bati 50€-ko prezio jartzen bazaio eta joko honek, adibidez, 10etik 8ko balorazioa duela, eta gero beste joko bat ateratzerakoan probaketaren ondoren balorazio handiagoa jasotzen badu prezioa igoko da eta balorazio baxua badu prezio baxua izango du produktu honek.

Ezingo da jokoen prezioetan enpresa handienekin (sony,sega,nintendo) konpetitu baina ahal den prezio hoberena jarriko zaie produktuei bezeroei sentrazio honekin uzteko asmoz.